

OIARTZUNGO UDALA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

2024-2029

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. OIARTZUNGO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA	5
3. AROA	6
4. OIARTZUNGO EUSKARAREN LEHENTASUNAK	7
5. ARDATZAK, ERRONKAK eta HELBURUAK	9
1. Gobernantza	9
2. Jarrerak / motibazioak	13
3. Ezagutza / gaitasuna	16
4. Erabilera / elkarreragina	21
5. Berrikuntza	26
6. Ikerketa / sistematizazioa	27
7. Komunikazioa	28

1. SARRERA

Euskalgintzako eta Udaleko ordezkari zein teknikariek osatzen zuten Euskara Batzordeak 2004-2005 ikasturtean arloz arloko azterketa egin ondoren, 2005-2010 Plan Estrategikoa diseinatu zen. 2005eko apirilaren 28an onartu zuen Oiartzungo Udaleko Osoko Bilkurak, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan (EBPN), 2005-2010 aldirako I. Plan Estrategikoa.

2012an Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) EAEko erakunde publiko guztientzako plan gidari gisa sortu zen, 10 urteko iraupenarekin, eta hau oinarri hartuta, 2012-2017 aldirako udalerriko Euskara Sustatzeko, Plan Estrategiko berria diseinatu zen, EMUN kooperatibako teknikarien laguntzaz. 7 hilabetez, EMUNeko teknikariek elkarlanean aritu zen udaleko Euskara Zerbitzua hausnarketa prozesu partehartzaile sakona dinamizatzen. Prozesuaren emaitza izan zen txostenean jaso ziren, arloz arlo egin zen egoeraren azterketa, zeharlerroak, lehentasunak, ekintza posibleak eta hauek gauzatu ahal izateko beharrezkoak liratekeen baliabide ekonomiko eta pertsonalak. 2012-2017 aldirako II. Plan Estrategikoa 2011ko azaroaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartu zen, aho batez. 2015ean berriz, Plan Estrategikoa Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren egiturara (ESEP) egokitu zen.

Plan Estrategiko honen indarraldia iraungita, Euskara Zerbitzuko teknikariak III. Plan Estrategikoa prestatu zuen Eusko Jaurlaritzak eskaini zuen IRATI aplikazioaren bidez. Honetarako, ez zen ezinbestekotzat jo partehartze prozesu zabala egitea. Batetik, 2005ean ateratako ondorio nagusienek bere horretan zirautelako, eta bestetik, Euskalgintzako ordezkariak, hainbat norbanakok eta Udalak osatzen zuten “Arnasguneak” lantaldean eta honek antolatutako tailer zabaletan egindako hausnarketek nahikoa erreferentzia eman zutelako hurrengo 5 urteetarako lehentasunak zehazteko.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2022ko maiatzean abiatu zuen ESEP berritzeko prozesua. Emtza hiru maila (ardatz-estrategikoak, erronkak eta lan-ildoak) jasotzen dituen AROA marko estrategiko bateratua izan da.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak berak, udalei euskara normalizatzen bide-erakusle eta aitzindari izateko eskumena eta erantzukizuna aitortzen die. Aitorpen hori eta euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, ez soilik barrura begira, hau da, toki-erakundean bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin, baita kanpora begira ere,

hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan gauzatzen diren eremu soziofuntzional guztietan.

Hori horrela, Oiartzungo Udalak 2023an zehar Euskaraz URTABE prozesua abiatu eta euskalgintzako zein beste hainbat arlotako eragileekin diagnostikoa egin ondoren, Oiartzunen euskararen erabilera normalizatzeko 2024-2029 aldirako IV. Plan estrategikoa diseinatu du Oiartzungo Udalak, Ahize-AEKren aholkularitza zerbitzuarekin batera. 2024-2029 bitarteko Euskara Sustatzeko Planaren erronka nagusiak irudiztatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesua izan da, 10 hilabeteko iraupena izan du, 2023ko otsailean hasi eta 2023ko abendura arte. Hausnarketa honen bidez, egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak zehaztu dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako AROA marko estrategikoaren baitan.

Datozen 5 urteotarako helburu nagusiak izango dira: Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat marko eta bide orria eskaintzea datorren urteetarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko. Bestela esanik, Oiartzunen euskararen aldeko kontzientzian eta transmisioan eragitea, euskarara hurbildu ez diren edo hurbiltzen ez diren herritarrak gerturatzea, eta politika ausartak hartzeko bidea egitea. Honetarako, eragileekin eta herritarrekin elkarlana eta sinergiak landuko dira.

2024-2029 plan estrategikoa 2024ko otsailaren 28an onartu du Udal Osoko Bilkurak aho batez.

2. OIARTZUNGO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

OIARTZUNen euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; hurrengo urteetan OIARTZUNen euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izango duten lanerako tresna.

OIARTZUNGO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA 2024-2029

Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat marko eta bide orria eskaintzea datorren urteetarako, euskal hiztunak sortu eta ahalduentzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko. Bestela esanik, OIARTZUNGO udalerrian euskararen aldeko kontzientzian eta transmisioan eragitea, euskarara hurbildu ez diren edo hurbiltzen ez diren herritarrek gerturatzea, eta politika ausartak hartzeko bidea egitea.

Era berean, eragileekin eta herritarrekin elkarlana lantzea eta sinergiak batzea.

3. AROA

AROA marko estrategikoan zehazten denez, plan estrategikoa aurrera eramateko, 7 ardatz estrategiko zehatu dira:

1. GOBERNANTZA
2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK
3. JAKINTZA / GAITASUNA
4. ERABILERA / ELKARRERAGINA
5. BERRIKUNTZA
6. IKERKETA / BERRIKUNTZA
7. KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA

Ardatz horiek garatzeko 14 erronka jaso dira AROA markoan eta horiek garatzeko 31 lan-ildo eta 86 ekimen. Hori horrela, euskararen sustapenerako Oiartzunen egingo diren ekimenak helburu, erronka eta ardatz horien arabera sailkatu ditugu plana osatzeko unean.

4. OIARTZUNGO EUSKARAREN LEHENTASUNAK

EUSKARAZ URTABE prozesuan zehar egindako hausnarketa eta diagnostikotik herritarrek arloz arloko ondorioak atera zituzten; haien ustez, Oiartzungo euskararen egungo egoera ikusita, honakoetan eragiteko beharra dago:

1. Euskararen ezagutza altua dago Oiartzunen, EAEko batz bestekoa baino nabarmen altuagoa. EAEn % 36,2 da euskalduna; Oiartzunen, aldiz, % 76. Gainera, hori da herritarren pertzepzioa ere eta horrek hainbat arlo euskaldunak izatera eramaten du.

Hala ere, **adierazkortasuna** kezka da oiartzuarrentzat. Erabilerak beheranzko joera erakusten du; horrek esan nahi du euskaraz aritzeko ohitura gero eta gutxiago dagoela, eta lotura zuzena du herritarrek hizkuntza batean edo bestean aritzeko daukaten **erraztasunarekin**.

2. Familia eta etxeko esparruari erreparatuta, **euskararen transmisioak** beheranzko joera du. Gainera, haur eta gazteak dira egun euskara gehien erabiltzen dutenak Oiartzunen; aldiz, helduen euskararen erabilera jaisten ari da urteek aurrera egin ahala.

Hortaz, egun **guraso diren edo laster izan daitezkeen artean eragiteko beharra** adierazi dute herritar batzuek; eta sentsibilizazioa landu nahi da haiekin, transmisioaren garrantzia ikus dezaten.

3. Euskal Herritik kanpo jaiotako gero eta jende gehiago bizi da Oiartzunen, eta baita euskara hurbil sentitzen ez duen herritarrak ere. Horien **euskalduntzeak eta integrazioak** kezka eragiten die herritarrei. Beraz, horiei bideratutako ekintzak egiten jarraitu eta berriak diseinatu behar dira.
4. Oiartzungo **enpresa eta komertzioetan** euskararen presentzia areagotzeko ekintzak egiten dira. Herriko komertzioei begirakoak herritarrek ezagutzen dituzte, eta eraginkorrak dira; enpresei begirakoak, aldiz, gutxiago. Aitzitik, **babes juridikoaren** beharra sumatzen da. Bide horretan, gaiari heldu eta orain arte egiten diren ekintzak indartzeko konpromisoa hartu behar da.
5. Oiartzungo gazteek erabiltzen dute euskara, helduek baino gehiago. Gainera, badituzte euskaraz aritu ahal izateko espazioak. Aitzitik, espazio horiek (kultura, aisialdia...) ez ditu gertu sentitzen hainbat gaztek; euskal komunitate itxi baten beharrak soilik asetzen dituztelako eta ez gazte oiartzuar guztien

beharrak. Beraz, hemendik aurrera **gazteak entzuteko espazioak** sortu beharko liratekeela uste dute, eskaintza zabaltzeko asmoz.

6. **Aisialdi, kultur eta kirol eskaintza euskalduna** da, oro har; eta horri **eutsi** eta indartzeko ekintzak martxan jarraituko dute hurrengo urteetan. Horrez gain, **eskaintza hori oiartzuar guztientzat irisgarria** izan dadin baliabideak aztertze beharra ikusten dute herritarrek.

Bestalde, euskarazko **ikus-entzunezkoak** zabaltzeko ekintzak egiteko proposamenak jaso dira hurrengo urteetarako.

7. Hedabide indartsuak daude Oiartzunen, batez ere, **irratia**. Tresna hori ongi baliatzeko beharra azpimarratu da, herritar guztientzako erakargarria egin eta denen parte-hartzearekin osatu dadin.

Era berean, prozesuan zehar egon dira behin eta berriz errepikatu diren **zenbait kezka** eta honako puntuetan laburbildu daitezke:

- Euskara agenda politikoaren erdigunera eramatea ezinbestekoa da. Hari horri jarraituz, euskararekin hurbiltasunik ez dutenak eta Oiartzuna etorri berriak lehen lerroan jarri beharko lirateke eta, beraz, kulturartekotasuna bermatu.
- Euskaldunen ahalduntzean lanean jarraitu behar da. Oiartzunen euskaldun ugari dagoenez, horien ahalduntzea eta sentsibilizazioa landu behar dira, transmisioa areagotzeko bidean.
- Euskaraz aritzeko erraztasunari eta adierazkortasunari arreta jarri behar zaie. Euskaraz jarduteko gaitasuna bai, baina erraz egiten ez duten horiek identifikatu eta horretarako baliabideak jarri; batez ere, gazteen arteko erabilera sustatzeko.

5. ARDATZAK, ERRONKAK, LAN ILDOAK eta EKIMENAK

1. GOBERNANTZA

G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
G.1.1	Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.					
G.1.2	Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzional zein sozialean.					
G.1.3	Euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.					

EKIMENAK	
1 Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz ematen direla bermatu. (1.1)	Eragiteko sektoreak
2 Oiartzungo euskalgintza herritarra eta publikoa koordinatzeko gunea berreskuratu eta egonkortu: Aholku Batzordea. (1.2)	Herritarrak, Udal zerbitzuak
3 UEMAren egitasmoetan modu aktiboan aritzea (aurrekontuan ekarpena). (1.2)	Arduradunak
	Hizkuntza normalizazio saila, UEMA, Ttur-ttur

- 4 Oarsoaldeko gainerako Euskara Sailekin elkarlana (aurrekontuan Oarsoaldeko gastua). (1.2)
- 5 Gipuzkoako Foru Aldundiko (UDAL<>EKIN) eta Eusko Jaurlaritzako elkarlanerako foroetan parte hartzea. (1.2)
- 6 Udalaren herritarrentzako mezuak euskara hutsean zabaltzea, eta QR bidez herrian hitz egiten diren beste hizkuntzetan. (1.3)
- 7 Politika ausartak aplikatzea. Esaterako, gaztelaniazko testuak “atzera” bidaltzea. (1.3)
- 8 Klean euskararen presentzia bakarrik egon dadin bultzatu. Esaterako: seinalizazioak euskaraz hutsean egotea. (1.3)

G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
G.2.1	Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.					
G.2.2	Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.					
G.2.3	Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.					

EKIMENAK	
1 Etorri berrientzat harrera plan integrala garatu (2.3).	Eragiteko sektoreak

	Etorri berriak, ikastetxeak...
	Arduradunak
	Hizkuntza normalizazio saila, Udala, ikastetxeak, Guraso Elkartek

G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
G.3.1	Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.					

EKIMENAK	
	Eragiteko sektoreak
	Arduradunak

G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
G.4.1	Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu.					
G.4.2	Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeeetako harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.					
G.4.3	Zaintza teknologikoa ziurtatu.					
G.4.4	Adimen Artifizialean euskara hizkuntza nagusien pare egoteko lanketa egin					

EKIMENAK	
1. PUNTUEUS fundazioarekin hitzarmena Oiartzungo entitateetan .EUS domeinua (4.2). 2. GAITU bezalako ekimenak herrian sustatu (4.4)	Eragiteko sektoreak
	Arduradunak

2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK:

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
JM.1.1	Euskaldun izatearen kontzientzian eragin.					
JM.1.2	Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta zabaltu.					
JM.1.3	Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.					

EKIMENAK	
1 Bizkarsoro eta Anti pelikulak tresna moduan erabili. (1.1)	Eragiteko sektoreak Gurasoak, gazteak, herritar euskaldunak Arduradunak Hizkuntza normalizazio saila, ikastetxeak, Guraso Elkartek, UEMA, Oarsoaldeko Euskara Batzordea, Tturttur
2 Aktibaziorako dinamikak indartu eta hedatu: Oarsoarrak, Konpromisotik aD/Ritzera, Euskaraldia... (1.2)	
3 UEMA/ EBETE erakundeentailerrak antolatu (euskara erabilera areagotzeko estrategiak). (1.2)	
4 Euskararen motibazio saioak indartu (Tturttur eta UEMArenak hedatu). (1.2)	
5 Lisipe eredu hartuta, feminismoak egin duen moduan, euskaldunak ahaldundu. (1.3)	

JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
JM.2.1	Euskararen komunitatea sendotu.					
JM.2.2	Euskararen erakargarritasuna landu.					
JM.2.3	Euskal hiztun-mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioetsi.					
JM.2.4	Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.					

EKIMENAK	
1. Euskararen borrokaren transmisioa egin: unitate didaktikoak eta herrian barrena ibilbideak memoriaren transmisioa. 2. “Oiartzunen euskaraz BENETAN bizi nahi dugu” eguna. (2.1) 3. Oarsoarrak euskararen saria. (2.1) 4. Mintzagun egitasmoa: tailerrak eta jaia. 5. Gazteentzat erreferenteak izan daitezkeenak ekarri (futbolariak, musikariak, umoregileak, aktoreak...) (2.2) 6. Euskaldun eredugarriak ikusarazi, ezagutarazi. (2.2) 7. Kultura euskaraz egitea gehigarri izan daitekeela nabarmendu (nagusiki gazteei begira). 8. Intersektzionalitatea landu. (2.3)	Eragiteko sektoreak
	Euskaldunak, familia transmisioa, euskara ikasleak, ikastetxeak
	Arduradunak
	Hizkuntza normalizazio saila, Udala, AEK, Oarsoaldeko Euskara Batzordea, ikastetxeak

9. Harrera protokoloa (2.3, 2.4)

10. Auzo erdaldunenetan lanketak egin.

3. EZAGUTZA / GAITASUNA

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EG.1.1	Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri.					
EG.1.2	Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.					
EG.1.3	Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza- kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.					

EKIMENAK	
1. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko gunetan eskuragarri jarri... (1.1) 2. UEUrako bekak. (1.1) 3. Atxolorra baliatu eta bestelako guneak/uneak aprobetxatu. (1.2) 4. Gurasoentzako irratitarteak. (1.2) 5. Gurasoentzako euskal abesti, jolasen... tailerrak eskaini. Ikastetxeen bidez? (Batez ere HHn, eta eskaintza pertsonalizatu) (1.2) 6. Oarsoirriak egitasmoa (1.2) 7. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri. (1.2) 8. Dagoeneko martxan dauden kulturgintzaren transmisioaren inguruko ekimenean herriko hezitzaileak	Eragiteko sektoreak Familia transmisioa, ikastetxeak, gazteak, hezitzaileak, begiraleak Arduradunak Ikastetxeak, Hizkuntza normalizazio saila, guraso taldeak, Ttur-ttur

parte hartu dezaten bultzatu (HUHEZI, irakasle masterrak...) (1.3)

9. Oiartzuera transmititzeko saioak hezitzaileentzat. Dagoeneko egin den bilketa lan hori zeharka txertatzen joatea. (1.3)

10. Kuadrillategi formazioa. (1.3)

EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EG.2.1	Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.					
EG.2.2	Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.					

EKIMENAK	
1. LANIN eta merkataritza egitasmoen bitartez, eremu sozioekonomikoan prestakuntza berezitua eskaini, eskaintza instrumentala egin helburu zehatzetarako: komertzialak, saltzaileak, bezeroekiko arreta (2.1)... 2. Mintzapraktika egiteko guneak, foroak sortu (guraso-lagun, mintza-lagun...) (2.1) 3. Oiertzuarren baitan (2.1) 4. Lan-orduetan euskara ikasteko aukerak eskaini. (2.2) 5. Eskaintza pertsonalizatu (adinka): batxilergoari zuzendutako ikastaroak, guraso edota aiton-amonentzako ikastaroak eskola-orduetan... (2.2) 6. Euskara ikasteko eta hobetzeko bekak. (2.2)	Eragiteko sektoreak
	Arlo sozioekonomikoa, euskara ikasleak, euskara ikaslegaiak
	Arduradunak
	Ttur-ttur, LANIN, AEK, Hizkuntza normalizazio saila

EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EG.3.1	Atzeritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.					

EKIMENAK	
1. Ikasle etorri berriei bertakoek dituzten aisialdi aukeretakako bidea eman: udaleku itxiak, eskolaz kanpoko jarduerak... 2. Haur etorri berriei errefortzu eskolak indartu eta lehen lerrora ekarri. 3. AISA ikastaroa.	Eragiteko sektoreak
	Etorri berriak
	Arduradunak
	Ikastetxeak, aisialdi elkarte / taldeak, Hizkuntza normalizazio saila, AEK

EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EG.4.1	Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.					
EG.4.2	Euskara gaitasuna hobetzen lagundu, adierazkortasunari bereziki erreparatuz.					
EG.4.3	Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera ugarietara.					

EKIMENAK	
1. Ahozkotasuna lantzeko: irratia, tik-tok, youtube... (txapelketak, saioak...) (4.1) 2. Baliabideak sortu ahozko euskara ikasteko taldeak sortzeko (adb: jubilatutak) (4.2) 3. Hika eta oiartzuera landu. Tailerrak edo bestelako dinamikak. [OIARTZUARREN BAITAN] (4.2) 4. Ahozko jardunaren ahuleziak gaitatzeko estrategiak: ...<i>paeta zaharrak erantzun</i> mahai jokoa. (4.2) 5. AEK hitzarmena. (4.3)	Eragiteko sektoreak
	Gazteak, euskara ikasleak, euskaldunak
	Arduradunak
	AEK, ttur-ttur, Hizkuntza normalizazio saila

4. ERABILERA / ELKARRERAGINA

EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EE.1.1	Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.					
EE.1.2	Eremu sozio-geografiko euskaldunetan bereziki bermatu familia-transmisioa, zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzea eta erabiltzea, euskarazko zaintza zerbitzuak eta euskararen komunitatea indartzeko ekimenak.					
EE.1.3	Eremu sozio-geografiko ez euskaldunetan babesgune izateko aukera duten eremuen mapa definitu eta esku-hartzeko sistema eraginkorrak bilatu.					
EE.1.4	Euskaldunen kopuru handiak dituzten eskualde-buruetan, hiriburuetan eta gune hiritartuetan bereziki eragin.					

EKIMENAK	
	Eragiteko sektoreak
	Arduradunak

EE.2.Euskaraz bizitzea arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu, eremu geografikoa edozein izanda ere.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
EE.2.1	Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.					
EE.2.2	Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin.					
EE.2.3	Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.					
EE.2.4	Hezkuntzako, udal edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileak elkarlanean, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hiztun osoak sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, motibazio- eta gaitasun-sistemetan eraginez					
EE.2.5	Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu					
EE.2.6	Ingurune digitalean euskara eroso erabiltzeko espazioak irabazi.					
EE.2.7	Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza handitu, bereziki fikziozkoa, eta, horrekin batera, plataformetarako estrategiak pentsatu.					

EE.2.8	Euskarazko hedabideak bultzatu.					
EE.2.9	Euskarazko kultur-produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko					
EE.2.10	Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.					
EE.2.11	Bereziki 16 urtetik beherako herritarrak lehenetsi esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.					

EKIMENAK	
1. <i>Eskolatik lanera</i> egitasmoa (2.3) 2. LANIN egitasmoa (2.3) 3. Merkataritza egitasmoak (2.3) a) Gremiokako lanketak b) Errenta aitorpena euskaraz c) <i>Betikoa. Gertukoa.</i> Sentiberatze kanpaina. 4. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa eman. EUSKARAZ SA kanpaina. (2.3) 5. OLA eta LANIN egitasmoetarako dirulaguntzak. (2.3) 6. EMUN hitzarmena Oarsoaldea. (2.3) 7. Merkataritza euskarriak. (2.3) 8. Euskara elkartera egitasmoa (2.3) 9. Arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko dirulaguntzak. (2.3) 10. Eragile ezberdinek euskara sustatzeko egindako ekintzak diruz eta azpiegituraz lagundu. (2.4) 11. Gazteen aisialdia indartu (eskaintza zabalagoa) haien ikuspegia kontuan hartuta. (2.5)	Eragiteko sektoreak Arlo sozioekonomikoa, familia transmisioa, hedabideak, gazteak, aisialdia Arduradunak Hizkuntza normalizazio saila, Tturttur, UEMA, Oiartzun Irratia, ikastetxeak, LANIN

12. Herriko emanaldi, jaialdi, festetan... euskarazkoak bakarrik.(2.5)
13. Kiroldegiko, helduen tailerretako, Oiartzun KE-ko... begirale eta hezitzaileak euskaldunak izatea bermatu (lan-elkarriketak euskaraz egin). (2.5)
14. Aisialdiko begiraleak ezin dira orokortu. (2.5)
15. Familia-laguna proiektua garatu (ikastetxeetan guraso etorkinen harrera egitea eta laguntzea). (2.5)
16. Kuadrillategi egitasmoa. (2.5)
17. Eskola kirola. (2.5)
18. Elkarrekin eta gurasoei begirako Euskarriak. (2.5)
19. Ikastetxeetan tik-tok, youtube... bideoak euskaraz sortzen lagundu. (2.6)
20. Zinema kalean. (2.6)
21. Auzoetan euskarazko ikus-entzunezkoak eskaini haur eta gazteentzat. (2.6)
22. Motxian Eby esketx lehiaketa. (2.6)
23. Pantailak euskaraz dinamika ezagutarazi. (2.7)
24. Euskal prentsa herriko txoko ezberdinetan bermatu. (2.8)
25. Berria/hitza/argia... zabaldu. Zerbitzu publikoa eskaintzen dutenei harpidetza erraztu. (2.8)
26. Oiartzun Irratia zenbat entzuten den ikertu. (2.8)
27. Oiartzun Irratia herrira zabaldu eta parte-hartzaile bihurtu. (2.8)
28. Irratirako baliabide gehiago jarri. (2.8)
29. Oiartzungo gazteek difusiorako espazioak eduki behar dituzte. (2.8)
30. Hedabideen arteko elkarlana: Oiartzun Irratia, Hitza, Argia. (2.8)
31. Herri, eskualde eta nazio mailako komunikabideak sustatzeko ekarpenak eta egitasmo bereziak. (2.8)
32. Gazteak herri komunikabideetako eduki sortzaile izatea bultzatu. (2.9)

- 33. Oiartzungo gazte sortzaileei proiektzioa eman, aintzat hartu. (2.9)
- 34. Sormen laborategia bultzatu gazteentzat. (2.9)
- 35. Prosa eta poesia lehiaketa. (2.9)
- 36. Merkataritza egitasmoak: *euskaraz barra-barra, euskararen paparazziak...* (2.10)
- 37. Ikastetxeetako ikasleek osatutako Euskara Taldeak indartzea. (2.11)

5. BERRIKUNTZA

B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
B.1.1	Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.					

EKIMENAK	
1.	Eragiteko sektoreak
	Arduradunak
	Hizkuntza normalizazio saila, UEMA, Ttur-ttur, AEK

6. IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA

IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
IS.1.1	Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.					

EKIMENAK	
2. Aisialdi eremuan begiraleek dituzten hizkuntza ohiturak ikertu. (5.1) 3. Kale-erabilera neurketak. (5.1) 4. Tokiko hedabideen inguruko ikerketa: irismena, kontsumo ohiturak, edukiaren egokitasuna, formatua... (5.1) 5. Erabileraren nolakotasuna/kalitatea neurtu. (5.1) 6. Ikerketa bat egin eta identifikatu 3.sektorean lan egiten duten herritarrek euskara ikasteko behar dutena zer den. (5.1) 7. Herriaren bueltan dabilen jendea, baina gerturatzen ez dena, nola hurbildu daiteke erdigunera? Ikerketa? (5.1) 8. Beka bat atera herrian hizkuntzaren bueltako ikerketak egiteko. (5.2) 9. Beste herrietan egiten dena ikertu eta aztertu. (5.2) 10. Dauden ikerketak ezagutu eta zabaltu (unibertsitatekoak, adibidez). (5.2) 11. Eragin esparruetan ikerketak sistematizatu. (5.2)	Eragiteko sektoreak
	Aisialdia, euskaldunak, hedabideak...
	Arduradunak
	Hizkuntza normalizazio saila, UEMA, Ttur-ttur, AEK

7. KOMUNIKAZIOA

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.

LAN ILDOAK		2024	2025	2026	2027	2028
KH.1.1	Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.					

EKIMENAK	
1. Xede taldeak identifikatu eta dagokion komunikabidea eskaini (baldin badago); bestela, sortzeko aukerak aztertu. 2. Irrati hau dena komunikatzeko baliatu. 3. Udalak telegram kanala sortzea hedapenerako. 4. Haur, nerabe eta gazteekin gaia landu beharko litzateke, eta horretarako haientzako ordutegi eta leku egokia topatu (prozesu parte-hartzailea). 5. Eman nahi diren mezuak irisgarri egin (tik-tok kontuak...) 6. Hizkuntza bereziki tresna den ekintzetan (bertsolaritza, antzerkia...) edo jardueretan forma berriak pentsatu garai berrietara egokitzeko. Eremu berriak pentsatu.	Eragiteko sektoreak
	Eragin esparru guztiak
	Arduradunak Hizkuntza normalizazio saila, Udaleko komunikazioa